

KULTURA: KONTZERTUA PORTUREN OMENEZ

ARKO

Arrasate

P R E S S

2001.eko
abuztuaren 16a
545. zenb.



**MUSIKAREN
ATEAK ZABALIK**

Arkeologia tailerra Santa Barbara

15 urtetik gorakoei zuzendua

- **Uztailaren 9tik 20ra, astelehenetik ostiralera, goizeko 10etatik ordu 2etara**
- **Matrikula: 5.000 pezeta / 2.500 ikasle eta langabetuentzat**



- **Izena emateak, Gazte bulegoan (943 77 00 65)**

EGITARAUA:

ARKEOLOGIA TEKNIKAK

- 1. eguna:**
Espazioa menderatzea: egipziarren triangulua.
- 2. eguna:**
Itsasontzien jokutik arkeologia koordenatuetara.
- 3. eguna:**
Geruzak: arkeologia liburuaren orrialdeak.
Historiaurrea eta Arkeologiaren arteko muga.

ANTZINAKO DENBORAK

Neanderthal gizartera hurbiltzea.

- 4. eguna:**
Sua.
- 5. eguna:**
Harrizko lanabesak egitea.

ORAINGO GIZAKIAREN ESPARRUA

Cro -Magnongo garai primitiboetara hurbiltzea.

- 6. eguna:**
Taila teknikak, harrizko tresnak egiteko I.
- 7. eguna:**
Taila teknikak, harrizko tresnak egiteko II.
- 8. eguna:**
Hazurrarekin lan egitea.
- 9. eguna:**
Arku tiraketako praktikak, historiaurreko ereduen arabera.
- 10. eguna:**
Indusketa prozesuan dagoen Lezetxikiko aztarnategira bisitan joatea.



ARKEOLAN



ARRASATEKO UDALA. Gazteria Saila ■


Arkeolan Ikerkuntza Zentruarekin elkarlanean.

urteurrenak

Altamirako printzak altuagoak

■ 69. zenb.
(1990-06-22)

Ferixalekuko obrek Altamiran eragin zituzten lur mugimenduengatik, etxeak eraikitzeko lanak bertan behera utzi zituen Irgalak. Jose Luis Iñarra pasealekuan, obren gainaldean agertutako printzak egunik egun handiagoak zirela-eta, bideari eusten zion horma erortzeko arriskuan ei zegoen. Horregatik, lanak gelditzeaz gainera harriak ekartzeari ekin eta bidezko horman burdin eta ainguratzek ipintzen hasi ziren.



Egunkariaren Eguna

■ 69. zenb.
(1990-06-22)

Egunkariaren Eguna izan zen Arrasaten. Arrasaldeko 19:00etan hasi eta 22:00ak arte iraun zuen festan egunkari erraldoiaren zortzi orrialde bete ziren. Orriak 152 publizitate moduluz eta 200 informazio moduluz bete ziren. Herriko denda ugari publizitatea jarri zuen. Arrasateko txalapartari taldeak, Josu eta Jokin trikitilariak eta Aizpurutxo hanka-palu taldeak alaitu zuten festa.

besteek esana



Hasieratik eskolaren identitate-ezaugarria eta beraren egiteko nagusia euskarazko hezkuntza sustatzea eta hedatzea izan da, bai gazteak irakaskuntzara trebatuz, baita irakasleei formazio iraunkorra bultzatuz. Eta egun, ikastetxeetara ez ezik enpresetara, kultur erakunde zein erakunde publikoetara hedatu nahi du euskara eta euskal kulturarekiko grina. Izan ere, eskolak bere ibilbide osoan erakutsi du gizarte-eragileekiko eta ingurunearekiko hurbiltasuna ezinbestekoak direla formazio egokia eman dezan eta berau gero errealitatean eraginkorra izan dadin».

Karmele Perez
ESKORIATZAKO IRAKASLE
ESKOLAKO HIZKUNTZA
IRAKASLEA
ARGIA

(2001eko ekainaren 10a)

Kiroldegi berria SFXen

■ 69. zenb.
(1990-06-22)

San Frantzisko Xabier ikastolak kiroldegia inauguratu zuen. Kiroldegi berriak guztira 70 milioi pezetako aurrekontua izan zuen. Horietatik, udalak 14 jarri zituen eta gainerakoak ikastolak berak. Pistek 600 metro koadroko azalera zuten, saskibaloia, eskubaloia, areto futbola eta boleibola praktikatu ahal izateko. Aldameneko aretoak 160 metro koadro zituen, batzarrak, hitzaldiak eta antzerkiak egiteko.

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Asteko hitzorduak 4
- Herritarren berbak 5
- Astearren errepasoa 6
- Inkesta 7
- Orain eta hemen 8/9
- Txutxumutxuak 10/11
- Aurrez aurre 12/13
- Kirolak jokoan 14/17
- Beheko dendatik 18
- Kulturaren txokoa 19/20
- Uhinetan barrena 21
- Foto zaharra 22



Domekan Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11, Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Arantza Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Bereizibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diselnuak:** Alex Azkarate. **Astoburuotako berriemallea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Laguntzaileak:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldi-zkariari adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualarioria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa

Arrasate

Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron
	(euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

"Portu"ren omenezko kontzertua

Ekainaren 15ean, "Portu"ren omenezko rock kontzertua izango da Monterron parkean, 20:00etan.

umeen danborrada

Ekainaren 16an, 19:00etan, umeen danborrada irtengo da, SUDCek antolatuta. Nafarroa etorbidetik hasi eta plazarainoko ibilbidea egingo dute.

dantzariak etxean hartzeko

Haur Dantzarien Eguna ospatuko da ekainaren 17an, eta etorriko diren umeak etxera bazkaltzera eramateko prest dauden familiak behar dira. Dantza taldeen Olarte kaleko egoitzan, AEDn edo Hiren izango dituzue eskaera orriak.

mus txapelketa

Ekainaren 17an, gizon eta emakumeendako mus txapelketa jokatu da, Roman Lopez-en eskutik. Hotel Mondragonen izango da, 16:30ean. Lehenengo lau bikoteendako sariak izango dira, eta 5.enetik 16.era bitartean, opariak.

lehiaketa - Arrosara doan!

Arrosara, Euskal Herria Zuzenean kontzertura laguntzaile moduan joateko aukera eman du Txatxilipurdik. Izena ematea hilaren 16a baino lehen egin behar duzue, 2.500 pezetaren truke. Doan joateko aukera ere baduzue, Txatxilipurdiren lehiaketan esku hartuta. Argibide gehiago, kultura orrietan.

gaztelu Konbo

Ekainaren 24an, Gaztelu Konbo talde arrasatearrak emanaldia egingo du Olarte kaleko Jai Zale tabernan, 20:00etan.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 15

- Morales, Araba

Zapatua, 16

- Azkoaga, Ferrerías

Domeka, 17

- Azkoaga, Iturriotz

Astelehena, 18

- Corcuera, Aranbarri

Martitzena, 19

- Irizar, Erguin

Eguaztena, 20

- Amezua, Santa Marina

Eguena, 21

- Zabala, Zarugalde

uztaileko ikastaroak

Arkeologia, argazkigintza, gaur egungo dantza eta irrati ikastaroak antolatu ditu uztaileko Gaztedia Sailak. Izena ematea Gazte Informazio Bulegoan edo 943 77 00 65 telefonoan egin beharko duzue.

goikobalu Txiki eta Gazte

Goikobalu Txiki eta Gazte ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte ekainaren 16an Bergaran eta 22an Arrasaten. Azken hori San Frantzisko elizan izango da, 20:00etan. Bestalde, Goikobalu Txiki edo Gazten esku hartu gura duten ume eta gazte txoek edozein partaideri eman diezaioke izena.



Herritarren berbak

AHT gelditu elkarlana

Iker Ezpeleta / AHTren Aurkako Asanbladako kidea

Zazpi urte daramatzagu AHTren Aurkako Asanbladakook bai AHT zein antzeko beste proiektu batzuen aurka lanean. Baina bai Espainiako gobernutik zein Eusko Jaurlaritzatik eman ziren pausoak ikusirik, hau da, AHT edo "Y" famatuaren proiektuari baietz definitiboa arlo juridikoa bakarrik zabalik utziz, lankidetzaz bultzatzea bururatu zitzaigun, beste talde batzuekin elkartzen gaituena kontuan hartuz: AHTren aurka gaudela alegia. EHNEkoek, bere aldetik, buruzazio bera izan zuten, eta bi taldeon ekimena uztartuz eta dei zabalen ondoren, AHT Gelditu Elkarlana sortu genuen. Par-taideak ugariak eta askotarikoak dira eta esan beharra dago atek zabalik daudela lankidetzaz honetan parte hartu nahi duen edozein talde edo pertsonari.

Lana hiru batzordetan banatu dugu: juridiko-instituzionala, zeinean udalek diharduten helegiteak sartuz, bai justizia arloan zein Europako batzordean; argumentazio batzordea, zeinaren lana ideologikoki zein mezu zabaldutik behar den lantzea den; eta azkenik, mobilizazio batzordea; batzorde horren lana, izenak berak argi

erakusten duen moduan, mobilizazioak lantzea da. Gasteizen aurkezpen ofiziala egin eta gero, lehenengo ekimena Bergaratik Angiozarrera, AHTk, Eibar-Gasteiz autobideak eta Beasain-Durango autobideak kalte-tutoko lituzkeen lurretatik ibilaldia izan zen, partaidetza politarekin. Orain, berriz, erronka handiagoan sartu gara: Donostian larunbat honetan egingo den Euskal Herri mailako manifestazioa. Arratsaldeko 18:00etan irtengo da Anoetako estadiotik.

AHTren proiektuari ez diote oraindik finantzaketa biderik eman ez Eusko Jaurlaritzatik ez Espainiako gobernutik ezta Europatik ere. Beraz, presio soziala egiteko momentu egokienean gaude, jende ugari elkarretaratzten bagara Donostian proiektua edo gutxienez euren jokamolde iluna birplanteatu beharko dute. Animo, beraz, une egokia baita eta gainera giro polita egongo da, manifestazio ostean jaia ere prestatu dugu-eta. Gogoratu, baita ere, bertara joateko autobusak antolatu ditugula eta Arrasateri dagokiona arratsaldeko 16.00etan Garibaiko autobus geltokitik irtengo dela.

“Presio soziala egiteko unean gaude, Donostian jende ugari elkartuz gero, proiektua edo euren jokamolde iluna birplanteatu beharko dute”



aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Zestoako Udalak herri hartako hizkera eta kultura ondarearen gaineko ikerketa egiteko beka antolatu du. Epea: ekainak 30.

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Barne Merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko dirulaguntzak. Epea: uztailak 2.

• Eusko Jaurlaritzak nekazaritzan eta arrantzan ikerkuntzan hasteko dirulaguntzak aurrez ikusi ditu. Epea: uztailak 4.

■ UDAKO UNIBERTSITATEAK

• Udaoko Euskal Unibertsitateak antolatuta, Biarritzen eta Iruñean uztailan egingo diren ikastaroen berri jaso dugu.

■ IKASTAROAK

• Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu uztailerako: arkeologia tailerra, irrati tailerra, argazkigintza eta gaur egungo dantza.

• Aukea kirol erakundeak udako kanpaina antolatu du: aerobika, arku tiroketa, eskalada, golf, mendi bizikleta, natura jarduerak, patinajea, esku pilota, squash eta tenisa. Ikastaroak bi txandatan egingo dira: ekainaren 27tik uztailaren 10era edo uztailaren 11tik 24ra.

■ LEHIAKETAK

• Gaztemaniak V. maketa lehiaketa. Gipuzkoako musikariendako deialdia, betiere diskoetxeren batekin argitaratutako diskorik ez badute. Epea: ekainak 30.

• Arrasateko Emakume Sailak antolatuta, Komiki ez sexisten IV. lehiaketa. Formatu bertikala, 2-4 orri bitarteko luzera, zuri-beltzean edo koloretan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: uztailak 20.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA
943 77 00 65

USTEAK USTE

Nostalgia baino gehiago

Gaur iluntzean oso jaialdi berezia egingo da Monterronen. Berezia, gure artean ez dagoen pertsona bat omenduko delako, eta berezia baita, jaialdian parte hartuko duten musika taldeak kontuan hartuz gero. 80ko hamarkadan piztutako hainbat ekimen gerora egon denaren giltzarri izan dira. Sozialki ikusita, era guztietako ekimenak gorpuztu ziren, eta musikaren esparruan, Euskal Herrian, behintzat, bizi zen desadostasunarekin lotutako zenbait talde sortu ziren, gehienak punk musika jorratuz. Are gehiago, gero egon denaren azpiegitura eratzen lagundu zuten. Horien artean, Arrasaten RIP, aurretik Doble Cero zena, baina baita beste asko ere. Denboraren eta bizimoduaren eraginez, asko desagertzen joan ziren. Beste batzuek, ordea, hala-hola jarraitu dute. Agian nostalgia kutsu handiegia badu ere, gau honetarako orduko zenbait talde berriz taulara igotzea oso berezia da askorendako. Jende dezente bidean galdu zen eta horiendako omenaldia ere izango da jaialdia.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Eroski erosketetan

Lau hipermerkatu gehiago eskuratu ditu Eroski Taldeak. Carrefour enpresari erosi dizkio Tarrasan, Sant Cugatén, Murtzian eta Cartagenan. Nahiz eta salmentako preziorik ez den zehaztu, Carrefour enpresako barne iturrien arabera, saltoki handi bakoitza 4.000 milioi eta 7.000 milioi pezeta artean kostatu zaio Eroskiri. Erosketa horrekin, Eroskik gaur egun 37 saltoki handi ditu Estatuan.

■ Udala bazkide

ARKOK eta Goienak lankidetzarako hitzarmena sinatu dute udalarekin, herriko eta eskualdeko komunikabideak garatzeko. Horrekin

batera, hemendik aurrera Arrasateko Udala Goiena kooperatibako bazkide izatea ere proposatu zuten, baina hori egin edo ez datorren asteleheneko osoko bilkuran erabaki beharko dute.

Etorkizuneko informazioaren gizartean hurbileko komunikazioak duen garrantzia jakinda, udalak eta ARKOK urte luzez herriko aldiakari, telebista eta irrati abian jarri eta gorpuztu dituzte. Orain, ARKOK Goienarekin ekoizpen kontratu bat sinatu du. Kontratu horren arabera, aurrerantzean Goiena kooperatibak ekoiztuko ditu ARKOKen produktu guztiak. Hori dela-eta proposatu da orain Arrasateko Udala Goienako bazkide izatea.

■ Fagor San Andres

Fagor San Andres parean hasi eta Tokialai baserrira bitartean argiteria eta zerbitzuetako sarea berritzea onartu du oraingo asteko Gobernu batzordeak. Guztira ia bi milioi pezetako aurrekontua onartu dute. Lanak Mariaezkurrena enpresak egingo ditu.

■ Semaforoa

Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepide tartean istripu dezente gertatzen dela-eta, udalak, foru aldundiaren onarpena jaso eta gero, bi semaforo ipintzea erabaki zuen: Muxibar baserri parean bata eta Tokialai baserria dagoen inguruan bestea. Eta, martitzenean Toki Alaiko semaforoa jarri zuten.

■ Energia berriztagarriak

Energia berriztagarrien gaineko ikastaroa egin zuten aurreko asteburuan Gesalibarren. Elektrizitatea lortzeko eguzki xafiak zelan egiten diren aztertu dute 20 bat lagunek. Zapatuan instalazioa zelan egiten den ikasi zuten eta domekan, guztia prestatu eta gero, materialak erosteko biderik aproposenak aztertu zituzten. Eskoriatzako Museo Eskolak eta Xabi Tramon mondragoetarrak antolatutako ikastaroa izan da.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Gertu zagoz euroaren etorrerandako?

Urtarriletik aurrera, kutxazainetan euroak bakarrik banatuko dira



Jose Ramon Celemin
(Langillie)

Baietz pentsetan dot, edo espe-ro dot, behintzet. Atzerrira juetie modukue da, ohittu arte... Hori bai, esperientzia hartzie komeni da kalkuluek ondo egitteko.



Mari Luz Heriz
(Langillie)

Ondiokan ez. Badakigu dato-rrera, hortaz, azkenien hartu egin biherko dogu, baiñe ondiokan ez gagoz gertu.



Josefina Rodriguez
(Langillie)

Momentu hontan ez nago ger-tu, ez.



Juan Ortega
(Langillie)

Ondiokan ez. Gaiñera, ni atze-rritarra nazenez, zaillague da; espainiarrek, behintzet, bada-kixie preziuek, eta neuk hori be ez...




Eneko Salterain
(Ikaslie)

Nere ustez bai, apurtxo bat kos-tauko jat, baiñe azkenien kon-ponduko naz.



Mari Gonzalez
(Etxekoandrie)

Ni ez nago gertu; edarra ar-zue datorrela! Bertan behera gerauko dala esango baleue, hobeto.



Elias Olmedo
(Jubilaue)

Ondiokan apurtxo bat falta jat, gaiñera nire adiñakin gauzak zaillaguek izeten die. Baiñe bueno, konponduko gare!



Karmele Astaburuaga
(Langillie)

Baietz pentsetan dot. Ez dago bilddurrik!

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Dendaren irekiera dela eta %20rainako deskontua

bede®

Atsedeen hartzeko modu asko dago, baina guztiak Bed's dendetan daude.


Zarugalde, 25 / ARRASATE / Tel.: 943 77 18 35

Zazpi lagun atxilotuta Debagoiengan ustez ETAkide izatearren

Zazpi lagun atxilotu zituen Polizia Nazionalak eguzten gauean Mondragoen, Aramaion eta Gasteizen: Premin Sampedro (26 urte), Natale Landa abokatua (30 urte). Txus Goikoetxea (32 urte) eta Nerea Hernandez tolosarra (30 urte), Mondragoen; Aitor (20 urte) eta Gorka (27 urte) Astondoa anaiak Aramaion eta Iban Astondoa (29 urte), hirugarren anaia, Gasteizen.

USTEZKO KOMANDOA

Goizaldean hasi zen operazio poliziala. Mondragoeko Amnistiaren Aldeko Batzordeak adierazitakoaren arabera, 01:00etatik aurrera; eta albiste hau idaztean, eguen eguerdian, oraindik itxi barik zegoen operazio poliziala, hor-



Zortzi etxebizitza miatu zituen poliziak Arrasaten eta Aramaion.

taz, litekeena da atxiloketa gehiago egotea.

Mondragoeko Arrano elkarte eta zazpi atxilotuen etxebizitzak arakatu zituzten, baita, Aramaionko Barajuen auzoko Astondoarren Artikilo baserria ere. 100 polizia baino gehiagok parte hartu zuen operazioan, GEO izenekoak barne. Mariano Rajoyk, Espainiako Barne Ministroak adierazitakoaren arabera, Donostia komandoko kide izatea egosten die; eta egindako miaketetan, beti ere polizia iturrien arabera, 35 kilo dinamita, detonadoreak eta kableak aurkitu dituzte, besteak beste. Mariano Rajoyk adierazitakoaren arabera, 100 bat lagunek osatzen dute Donostia komandoa.

Osoko bilkura berezia

Sanjuanak datozela-eta, udalbatzarrak ohiko osoko bilkuraren data aurreratu eta datoren-astehenean ezohiko bat egitea erabaki du. Besteak beste, Egitamu Orokorra onartzeko proposamena, Arrasateko Udala Goiena Kooperatibako bazkide izateko proposamena eta Garagartzako arau subsidiarioen aldaketa landuko ditu. Azkeneko puntu hori onartuz gero, Fagor Garagartzak egin gura duen egitasmoak aurrera egingo du.

Debagoiena, turismo sortzaile

Euskara biziberritzeko eta Euskal Herriko ingurunea bultzatzeko programa berezia jarri du abian Eusko Jaurlaritzak: *Euskaraz Bizi*. Oro har, landa-turismoko azpiegituz baliatuz aisia euskal giroan bizitzeko aukera eskaintzea du xede programak. Hamabi eskualde proposatu ditu eta tartean Debagoiena ere badago.

BOST EGONALDI

Gure bailararako bost egonaldi mota prestatu ditu jaurlaritzak: asteburuko egonaldiak; Gatzaren eta Ardoaren Ibilbidea; inguruko monumentuak ikusteko ibilbidea; bost egunez, besteak beste, Oñatiko monumentuak, Oñatz mendia eta Arantzazuko santutegia bisitatzeko aukera; eta, Oñatiko Natura Eskolan zazpi egun ere igaro ahal izango dira. Horrez gain, bailarako berbetak praktikatzeko parada ere eskaini du jaurlaritzak.

Bi titulazio berri eskainiko ditu Mondragon Unibertsitateak

Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoak bi ikasketak berri eskainiko ditu datoren ikasturteetik aurrera: Telekomunikazioen Ingeniaritza titulazioaren barruan, Telematika eta Telekomunikazio Sistema espezializazioak. Lehenengo ziklokoak dira ikasketak horiek eta administrazioaren baimena eta homologazioa jaso dute.

Ikasketak horietan izena emateko epea datorren ekainaren 20an bukatuko da.

PLAN ESTRATEGIKOAK

Mondragon Unibertsitateak (MUNI) 2000-2007 urteetarako aurrez ikusita duen Plan Estrategikoaren barruan sartzen dira titulazio berriak. Plan horrek jasotzen duenez, gaine-



ra, 2004-2005 ikasturteen artean Telekomunikazioen Ingeniaritzaren bigarren zikloa ezarriko dute, eta 2006-2007 urteen artean hirugarren zikloa ere ezartzea pentsatu dute. Gainera, ikasketak bukaerako proiektua Ericsson, Euskaltel, Tele-

fonica, EiTB, Fagor, Ikerlan edo Airtel moduko enpresatan egin ahal izango dute MUNIKo ikasleek. Gizarteak izandako garapena eta komunikazioek irabazi duten indarra kontuan hartuta ezarri ditu MUNIKo ikasketak berriak.

“Trenbidearen alde, AHT gelditu”

Bihar Donostian egingo den manifestazioarekin bat eginez, Lastertasun Handiko Trenaren kontrako protestak egin dira astean barrena Mondragoen. AHT Gelditu Elkarlanak deituta, Euskal Herritarrok, Ezker Batua eta Zutik alderdietako ordezkariak ordubeteko bilkura egin zuten Seber Altuben. Oro har, proiektu suntsizaille baten aurrean gaude la salatu zuten eta derrigorezkoa dela proiektua geratzea.

Horrez gain, iluntzean beste bilkura bat egin zuten Eroskiko biribilean eta beste bat ere Bergaran.



Eta, jakina, biharko manifestazioarekin bat egiteko dei egin zuten. Arrasatek irteera 16:00etan izango da, Garibai-


ko autobus geltokitik. Gero, manifestazioa bera Anoetako estadiotik bertatik irtengo da, 18:00etan.

Euskararen alde

Euskal Herrian Euskaraz taldeak manifestazioa antolatu du datorren zapatarako, hilak 23, Gasteizen. Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna aldarrikatzea da manifestazioaren helburua, eta euskararen kontra egin dituzten azken erasoak ere salatu gura dituzte.

Manifestazio horretara joateko, auto-ilara antolatu du EHE taldeak. Mondragoera Bergararik etorriko da, arratsaldeko 16:00etan. Esku hartzea nahi duena Arbolapetara joan beharko da ordu horretan, autoarekin edo auto barik.

Txikienen danborrada handia



Zenbait estualdi igaro eta gero, oztopo eta muga guztiak gainditu eta bihar 108 umek danbor burrundarekin beteko dituzte herriko kaleak. Eurei laguntzen, 30 sukaldari eta 18 kantinera ere izango dira, eta beste 30 gaztetxo SUDCek egindako karrozan joango dira. Hortaz, sekula baino ume

gehiagok esku hartuko dute aurtengo danborradan.

Arrasate Musikaleko Bandak lagunduta, arratsaldeko 19:00etan irtengo da Nafarroa etorbideetik, handik Garibai etorbidera egingo dute, gero Maalara, Erdiko Kalera joango dira segidan eta herriko plazan bukatuko dute.

Leze Txikin auzolandegirik ez

Aurten ez dute auzolandegirik egingo Arrasateko Leze Txikiko kobazuloan. Izan ere, bukatu da azken hiru urtean Gipuzkoako Kutxak eta Arrasateko Udalak adostutako hitzarmena. Halaber, gaia aztertu eta gero, udaleko Gazte batzordeak erabaki du Eusko Jaurlaritzari proiekturik ez aurkeztea.

Besteak beste, elurzuloak

berreskuratzen eta Leze Txiki kobazuloan bertan zenbait lan egiten aritu da hiru urte horietan Euskal Herritik etorritako makina bat gazte. Eurekin batera, kobazuloan indusketa lanak egiten ibili da Alvaro Arrizabalaga arkeologoak zuzendutako taldea. Eta, nahiz eta aurten auzolandegirik ez egon, indusketa lanek aurrera segituko dute.



Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



ETXERAKO AULKI BEHARREAN?

Harrapaketa egiten ari direla ematen du, baina ez: Amaia antzokia konpontzen ari dira. Eserleku guztiak kendu dituzte, gero beste egokiago batzuk ipini ahal izateko. Martxa onean ari dira, bada, konponketa lanok.

... ETA HUSTU ONDOREN, GARABIAREKIN BUELTAKA

Baina ez pentsa, ez, Amaia antzokiko lan guztiak hain lasai eta isilik egin zituztenik. Joan den astelehenean, Otarako errepideko noranzko bat itxi egin zuten, garabi galanta honek bere lana egin ahal zezan. Antzokiko egokitzapen lanek bide onetik segitzen dute, aurreikuspenen arabera.



EMAKUMEAK, FINAK; GIZONAK ERE BAI

Roman Lopez mus irakasleak emakumeendako mus txapelketak antolatu izan ditu urtero-urtero jaietan. Antolatu izan dituela diogu, aurtengoa, gizonzkoen protestak direla eta, emakumeendako eta gizonendako lehiaketa izango delako. Ekainaren 17an izango da, Mondragon hotelean.

BANDERADUNAK ETA JENERALA

Hona hemen aurtengo umeen danborradako protagonistetako batzuk: Amaia Alves (Euskadiko ikurrina eramango duena), Ana Salaberri (SUDCeko banderaduna), Unai Okina (jenerala) eta Naroa Jimenez (Arrasateko ikurrina eramango duena). Ziur eurek, baita beste ume guztiak ere, primeran egingo dutela euren lana.





LOREEN HILABETEAN, LOREAK LARREAN

Maiatza, udaberriaren bihotza, aukeratu zuten La Merced ikastetxeko ikasle ohiek batzara egiteko. Txillida-Lekura joan ziren lehenengo eta Zabalaga base-rira gero. Zenbat kontu izango zituzten elkarri kontatzeko!

ZORIONAK, XABI!

Fagorren, lanean, oso bestelako itxurarekin agertzen den arren, Xabi Urtubi da argazki-ko mutil-neska pinpirina. Agur-afaria egin zioten lankideek, eta guztiak ere jai giroan murgilduta zebiltzan. Zorionak, Xabi, lankideen eta baita gure partetik ere!



BARRAKAK, LEHENENGOAK

Jai giroa usain daiteke dagoeneko herrian. San Juanetako ospakizun handienak datorren astean izango diren arren, oraingo asteburuan ere badago ekitaldirik. Umeek izango dute aukera oparoena, eta joan den astetik izan dute barrakekin gozatzeko aukera, horiexek izan ziren-eta iristen aurrenak.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84


**PUB
HAIZEA**



JOSE RAMON VITORIA (MUSIKA IRAKASLEA)

«Gutxituendako espresio»

Ostarraren hotsaz liburu argitaratu berri du Jose Ramon Vitoria, gutxituei musika irakasteko liburu. Arrasate Musikaleko irakaslea da Jose Ramon Vitoria eta zazpi urte daromatza gutxitu psikikoekin lanean. Ostarraren hotsaz liburuan euri musika erakusteko metodoa erabiltzen du, Aschero, hain zuzen ere.



Hamalau ikasle ditu Vitoriak gaur egun. Ikasle finak dira eta kontzertuak ere eskaintzen dituzte. "Gainerako ikasleak modukoak dira, nork bere gaitasunak, erritmoa, lana, gogoa, ezintasunak... ditu, baina edozein ikasle dituenak modukoak".

Ez du bereizketarik egiten: "Batzuek down sindromea daukate, beste batzuk autistak dira, beste hainbatek buru-atzerapena dute edo garunparalisia daukate... baina, hala ere, gu oso ondo moldatzen gara, eta esan dezaket musikak zerikusia duela horretan; euren egoera hobetzeko eta euren gaitasunak eta hainbat arlo jorratzeko aukera ematen die".

eta horrelako hitz-potoloak erabiltzen dira, baina gaur egun oraindik ere esparru hori zabal-tzea asko kostatzen da.

- Bestalde, ez ote ditugu gehiegi babesten?

- Bai, izan daiteke, baina hori azkenean gure aurreiritzia da. Ikusten dugu oso maiztagarriak direla eta horrek eragiten digu modu horretan jokatzea euren... baina hori guztia gertatzen da oso informazio gutxi dugulako. Zer gura duten, zer diren, zein arazo dituzten... geure burua lasai edukitzeko, babesa ematen diegu; egia da orain arte hori ere ez dela izan, hortaz, alde horretatik aurrerapauso handia eman da. Behin baino

«Gutxituei aukerak eman behar zaizkie, horrela ikasi dutena erakusteko gai izaten dira»

-Askotan gutxietsi egiten ditugu, eta eurek erakusten digute badakitela non dauden....

-Nik uste dut aukerak eman behar zaizkiela, eta aukerak emanez gero, erakusteko gai izaten dira. Egia da gizarte honetan aurreiritziak daudela, marketinga erabiltzen da, diskriminazioa, bazterketa, normalizazioa, integrazioa

gehiagotan entzun izan dugu halako ume bat ganbara batean gordeta dutela... Zorionez, horrelako kontuak geroago eta gutxiago gertatzen dira. Hala ere, oraindik bide luzea dago egiteko eta garrantzitsuena informazioa da, duda barik. Bestalde, aukerak eman behar dizkiegu eta sinistu egin behar dugu euren gaitasuntan, gaitasunak badituztela-

bide berria da musika»

ko, inongo duda barik. Abes-
tiak sortu, bertsoak egin...
musikak dituen onurak dira.

- Zertan laguntzen die musikak down sindromea dutenei?

- Duela zazpi urte hasi nintzen arlo honetan lanean eta helburua hasieratik berbera izan da, komunikatzeko bide berria zabaltzea. Espresio bide berria da: berba egiterakoan "kosta" egiten zaie, baina hori erlatibo da, eta beste hainbat arlo daude musikaren bidez landu daitezkeenak, batez ere

arreta, kontzentrazioa, baita beren autoestimua ere.

Harritu egiten gaitu nola begiratzen dioten jendeari aurre egira. Kontzertu bat ematen dutenean, jendeari begiratzen diote eta ohartzen dira nola begiratzen dieten. Entzuleek garrantzi handia ematen diote euren lanari, eta horrek poztu egiten ditu. Musikari ona izateko hainbat baldintza bete behar dira: belarri ona izatea, kontzentrazioa... eurek hori badakite, eta ondo egiten badute poza ematen die. Gero txalo zaparrada etortzen bada,

horrek pilak kargatzen dizkie. Hori guztia onuragarria da eurendako.

- Liburuak edonorendako balio dezake?

- Bai, noski. Musikan murgiltzeko, abiapuntu moduan, sistema hori izan daiteke biderik argiena eta errazena.

- Ostadarra kolorez jantzia da, zer lotura du ostadarrak musikarekin?

- Musika ikasteko modu horretan kolorea erabiltzen dugu musika notak bereizteko.

Kolore biziak, suabeak... intensitatea... modu honetan identifikatzen dira nota agudoak, baxuak, altuak...

Oso erraza da modu honetan musika ikastea, solfeo barik.

- Zelan eskura genezake liburua?

- Liburua Hik Hasi euskal heziketarako aldizkariak argitaratu du, hortaz, oraingoz ikastola guztietan egongo den liburua da eta gero musika eskoletan eta edozein liburu dendatan eskuratu ahal izango da.




ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Arrasateko Atletismo Taldea markak hautsiz

Atletismoak poz handia utzi zigun pasa den asteburuan. Arrasateko Atletismo Taldeak hiru txapelketa izan zituen jokoan eta airoso atera zen guztietan ere. Domina eta marka on ugari ekarri zituen etxera, bai Donostiatik, bai Gasteiztik baita Durangotik ere.

IV. KUTXA TXAPELKETA

Joan den zapatuan IV. Kutxa txapelketa jokatu zen Anoetan eta arrasatearrak 12 probatan nagusitu ziren. Txapelketa Arrasate Kirolak-eko 40 atletak esku hartu zuten eta hainbat domina lortu zituzten.:

Urrezko dominak:

-Markel Ansoategik 60 metroetan, alebinen mailan.

-Iñaki Biterik pisu jaurtiketan, kadeteen mailan.

-Jon Ander Amadok luzera-jauzian, alebinen mailan.

-Markel Blancok 600 metroetan, alebinen mailan - Errelebueta, Etxagibel, Amado, Blanco eta Esperasate alebinen mailan.

- Beñat Barberena pisu jaurtiketan irabazlea izan zen alebinen mailan.

Zilarrezko dominak:

-Iñigo Zabala luzera-jau-

zian, kadeteen mailan.

-Errelebueta proban, infantiletan: Trojaola, Errasti, Uribebebarria eta Zhan.

Alebinetan: Ansoategi, Espartza, Jauregi eta Carmena Kadetetan: Viteri, Zabala, Irastortza eta Sainz.

Brontzezko dominak :

-Lander Errastik luzera-jauzian, infantilen mailan.

-Maddi Urizarrek pisu jaurtiketan, alebinen mailan emakumezkoetan.

-Errelebueta: Nafarrate, Gonzalez, Blazkez eta Ramirez, infantiletan.

Taldekako sailkapena:

Lehen postua kadete gizonetzkoetan, Iñaki Viteri, Ibai Irastorza, Zabala eta Javi Garcia. Lehen postua alebinen gizonetzkoetan: Markel Blanco, Markel Ansoategi, Beñat Barberana eta Jon Ander Amado.

X. BLANKA SARIA

X. Blanka saria jokatu zen Mendizorroztan, Gasteizen, eta Oskar Gavilanez zilarra eskuratu zuen disko jaurtiketan.

Unai Sarabia 100 metroetako proban kanpoan geratu



Oskar Gavilan, zilarrezko domina lortu zuen disko jaurtiketan Durangon jokaturako Euskadiko Txapelketan.

zen, irteeran bi huts egin zituen eta.

400 metroetako proban, Martin Davilak 53"01 behar izan zituen, eta seigarren

geratu zen .

EUSKADIKO TXAPELKETA DURANGON

Bukatzeko, Durangon Euskadiko txapelketa jokatu zen juniorren mailan. Zilarrezko domina Oskar Gavilanez lortu zuen disko jaurtiketan eta brontzezkoa, berriz, Angel Riverak.

AKITANIA TXAPELKETA

Beteranoek Euskadiko Akitania txapelketa jokatu zuten eta Mari Jose Gil 61 urteko emakume arrasatearrak brontzezko domina lortu zuen 1.500 metroetan, Javier Mentxakak ere lan ona egin zuen eta brontzea bereganatu zuen beteranoen mailan, gizonetzkoetan; 5.000 metroak 16 minutu eta 19 segundotan egin zituen arrasatearrak.




Carmona, Jauregi, Esparza eta Ansoategi alebinek, zilarrezko domina lortu zuten errelebueta proban.

Bi arrasatear lehenengo postuetan gimnasia erritmikoko Euskal Ligan

Janire Bolinagak eta Miren Bragadok gimnasia erritmikoko Euskal Ligan esku hartu zuten joan den domekan.

Hortaz, hamazazpi urteko bi arrasatearrek argi erakutsi dute aurten lan handia egin dutela, eta modu ezin hobean eman diote amaiera ikasturteari. Janire hirugarren geratu zen juniorretan, B mailan, eta Miren bosgarren, A mailan. Bakoi-tzak bi dantza egin zituen, bi aparatu ezberdin erabiliz. Janirek uztaia eta zinta erabili zituen eta uztaiarekin lehenengo postua erdietsi zuen.

Bi neskatalak fin ibili dira eta balio dutena erakusteko aukera izan dute azkenean.



Aukearen kirol eskaintzak

Aukea kirol erakundeak aurtengo uda denboraldiko kanpaina abiarazi du.

Urtero legez, aurten ere kirol eskaintza oparoa egin du: aerobica, eskalada, arku tiroketa, golfa, mendi bizikleta, patinajea, eskupilota, squash, tenisa baita natura jarduerak ere. Gehienak Musakolako kiroldegian emango dira, baina eskalada eta pilota, esaterako, Uarkapeko pilotalekuan emango dira.

Ekain eta uztailean bi txanda egongo dira, lehenengoa ekainaren 27tik uztailearen 10era izango da eta bigarren txanda, berriz, uztailearen 11tik 24ra. Izena ematea ekainaren 22a baino lehen egin beharko da, eta Aukeako abonatuak dagozkien beherapenak izango dituzte.

San Juan Saria ehiza txapelketa

Leintze ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta, San Juan Saria ehiza txapelketa jokatu-ko da bihar.

Kaiolako usakumeen tiraldi nagusia jokatu-ko da San Kristobalگو hilerriaren ondoran. Txapelketa goizez, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez, 15:00etatik 19:00etara, izango da. Sariak potoloak izango dira: Lehena 35.000 Pta. Bigarrena 25.000 Pta. Hirugarrena 15.000 Pta.

Bazkideen artean, aparteko sariak banatu-ko dira: Lehenengo saria 11.000 Pta. Bigarrena 10.000 Pta. Hirugarrena 9.000 Pta. Izena ematea: Bazkideendako 5.000 Pta. Bazkide ez direnak 6.000 Pta. 65 urtetik gorakoek: bazkideek 3.200 Pta. bazkide ez direnek 4.200 Pta. Federatua egotea beharrezkoa izango da. Parte hartzaile guztien artean urdaiaz-piko ederra zozkatu-ko da.

LXII. San Juan txirrindulari lasterketa

San Juan txirrindulari lasterketa jokatu-ko da bihar, hilak 16. Aurten 62. aldia izango du eta lasterketak guztira 135 kilometro izango ditu.

Arrasateko Garibai etorbidean hasiko da 09:30ean eta toki berean amaitu 13:00etan. Ehun ziklistak baino gehiagok esku hartu-ko dute, elitekoak eta 23 urte azpikoak guztiak, eta honako ibilbidea egin behar izango dute: Arrasate-tik Bergarara, handik Osintxura eta berriro Arrasatera. Arrasate-

tik Aretxabaleta aldera joko dute, eta Eskoriatzara eta Gatzaga gainera igo ostean, berriro ere Arrasaterako bidea hartu beharko dute, eta gero Osintxu aldera abiatu. Hortaz, ibilbide hori bi aldiz egin beharko dute. Parte hartzaileen artean, Iban Velasco arrasatearra izango da, Arabako Ruta de Europa taldekoa.

Velascok iaz lehen arrasatearraren saria eskuratu zuen eta aurten ere postu ona lortzeko ahalegina egingo du.

Kanebo

MIREN ARRIETA PERFUMERIA

Zerkaosteta, 12. Tel.: 943 79 00 35

ARRASATE

Promozioa ekainaren 18tik 22ra:

Kaneboko Edertasun Aholkulari batek informatu-ko dizu eta tratamendu berezia eskeini ere.

* Behar beharrezkoa hitzordua hartzea Kanebo produktuak erostearren, opariak jasoko duzu
* Opariak mugatuta

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Jon Aperribai arrasatearra laugarren Debagoieneko lehen triatloian

Arrakastatsua izan da Debagoieneko lehenengo triatloia. Bailarako triatletek erakutsi dute gorputzaldi onean dau dela, eta horren adierazgarri arrasatear baten laugarren postua: Jon Aperribai, hain zuzen ere.

Zapatu arratsaldean jokatzen zen proba Arrasaten eta, horrela, aurtengo triatloi denboraldia hasi da. Bihar, hilak 16, Zarautzen denboraldiko bigarren triatloia jokatuko da, Euskal Herriko triatloirik ospetsuena. Ibilbide polita baina gogor samarra izan da Arrasatekoa. Horixe adierazi zuten kanpotik etorri ziren triatletek. 180 parte hartzaile izan ziren guztira, tartean, ezusteko handirik gabe irabazlea izan zen Hector Llanos gasteiztarra. Ordubete



Jon Aperribai laugarrena izan zen Debagoieneko lehen triatloian.

eta 52 minutu behar izan zituen triatloiko hiru probak betetzeko: 1.500 metro igerian Urkulun; 40 kilometro bizikletan eta bukatzeko 10 kilometro lasterka herri barruan.

Arrasateko triatloi taldeak antolatu zuen proba eta aipatzekoa da taldeko mutilek egin zuten lana, ez bakarrik antolaketan baita proban bertan parte hartuz ere.

ARRASATEARRA LAUGARREN

Jon Aperribai izan zen laugarren, baina gainerako taldeki-deak ere ez ziren batere gaizki ibili. Zuhaitz Ezpeleta 12. sailkatu zen eta Zigor Jimenezek eta Oier Etxeberriak ere ondo bukatu zuten proba.

Igeriketa proban ibili ziren makalen debagoiendarrak. Jon bera 37. izan zen. Baina lasterka eta bizikletan oso ondo

ibiltzen da, eta hortxe ateratu zuen aldea baita hainbat triatletari aurre hartzea ere; txirrindularitza proban, gainera, berak lortu zuen denborarik onena. Nesketan irabazlea Virginia Berasategi izan zen eta Debagoienekoen artean, Leire Urretxu gaztea izan zen aurrena; oso ondo ibili zen arrasatearra bere lehenengo triatloian. Eguraldia ere konfuntuan hartzekoa izan zen, izan ere, hasieran giro ona bazen ere, gero ekaitza etorri zen eta, jakina, horrek zaildu egin zituen gauzak, txingorra ere egin zuen eta bat baino gehiagok bizikleta utzi eta aterpean sartu behar izan zen.

Antolatzaileak gustura geratu dira; hemendik aurrera, talde-lana indartu eta urtetik urtera hobetzea da helburua.

Zaldibarko areto *futbola*

Emaitzak

IKP 2- Rayo Aldeano 11
Txapime Dribling 4- Iritz 2



Aramaioko taldeak, Rayo Aldeanok, erraz irabazi zion IKP taldeari joan den zapatuan. Lehenengo zatia parekatua izan zen, baina bigarren zatian aramaiorrek euren nagusitasuna erakutsi zuten eta finala jokatzeko txartela eskuratu zuten. Txapime Dribling taldeak ere finalerako txartela eskuratu zuen, hortaz, Arrasatearrez eta aretxabaletarrez osatutako taldea izan daiteke aurtengo Zaldibar txapelketa irabazlea.

Final handia 17:00etatik

aurrera jokatuko dute Rayo Aldeano eta Txapime Dribling taldeek. IKPk eta Iritzuk, bestalde, 16:00etan jokatuko dute, hirugarren lekua lortzeko asmoz.

BARKAMEN ESKE:

Antolatzaileek barkamena eskatu gura die pasa den astean partidua izan zuten lau taldeei eta partiduak ikustera joan ziren guztiei. Lehenengo partidua hiru ordu laurden berandu hasi zen, 12:00etan ez zen eta antolatzailek agertu.



Hurrengo partidak

Zapatuan

16:00 IKP- Iritz

17:00 Rayo Aldeano- Txapime Dribling

Bikoteak

A Taldea	jok.	punt.
1. TORIBIO-PI	7	14
2. IÑIGO-ISTURIZ	7	13
3. SAIZAR-PON	7	12
4. MUXI-ULLI	6	10
5. EIMON-ZARRE	7	10
6. JOSEBA-JOSU	7	9
7. HARITZ-URKO	6	7
8. BOLING. I-KARNI	7	7

C Taldea	jok.	punt.
1. AITOR-OIER	5	10
2. ASIER-URTZI	4	7
3. TXELO-XABI	4	6
4. BERMU-BIU	5	5
5. LUR-LAGAR	2	3
6. BULL-PIRULO	2	3

B Taldea	jok.	punt.
1. GAIZKA-UGUTZ	5	10
2. GAIZKA-BOLUDO	5	8
3. PIRU-MUTXIN	4	6
4. OTUTO-ARANBU.	4	6
5. MARKEL-UNAI	4	5
6. BOLING. II-BEX	5	5

D Taldea	jok.	punt.
1. GORKA-HAYMAR	7	14
2. ASIER-GORKA	7	13
3. KASKO-IRA.	7	12
4. CARLOS-UNAI	7	10
5. ARGIDER-IBAN	7	10
6. CARBONI-TITINO	7	9
7. GARI-IGORTZ	5	7
8. TXETXI-SKRITX	4	4

EMAITZAK EKAINAK 9,10

A TALDEA
TORIBIO-PI 22
MUXI-ULLI 6
EIMON-ZARRE 8
IÑIGO-ISTURIZ 22
SAIZAR-PON 22
BOLINGAZO I-KARNI 7
HARITZ-URKO 13
JOSEBA-JOSU 22
TORIBIO-PI 22
EIMON-ZARRE 15
IÑIGO-ISTURIZ 22
MUXI-ULLI 18
SAIZAR-PON 22
HARITZ-URKO 0
JOSEBA-JOSU 22
BOLINGAZO I-KARNI 6

B TALDEA
OTUTO-ARANBURU 22
GAIZKA-BOLUDO 13
PIRU-MUTXIN -
MARKEL-UNAI -
GAIZKA-UGUTZ 22
BOLINGAZO II-BEX 1

D TALDEA
BERMU-BIU 14
TXELO-XABI 22
LUR-LAGAR -
ASIER-URTZI -
AITOR-OIER 22
BULL-PIRULO 0

E TALDEA
TXETXI-SKRITX 0
ARGIDER-IBAN 22
GORKA-HAYMAR 22
CARBONI-TITINO 6
CARLOS-UNAI 15
ASIER-GORKA 22
KASKO-IRAULTZA 22
GARI-IGORTZ 0
TXETXI-SKRITX 0
ASIER-GORKA 22
GORKA-HAYMAR 22
ARGIDER-IBAN 18
CARLOS-UNAI 22
GARI-IGORTZ 0
KASKO-IRAULTZA 22
CARBONI-TITINO 20

FINAL LAURDENAK

Ekainak 16, larunbata

- A) 15:00 TORIBIO-PI vs ASIER-URTZI**
- B) 15:30 IÑIGO-ISTURIZ vs AITOR-OIER**
- D) 16:00 GAIZKA-UGUTZ vs ASIER-GORKA**
- E) 16:30 GAIZKA-BOLUDO vs GORKA-HAYMAR**

FINAL ERDIAK

Ekainak 16, larunbata

- 1) 18:00 A) ko GARAILEA vs D) ko GARAILEA**
- 2) 18:30 B) ko GARAILEA vs E) ko GARAILEA**



Marian Sanchez Beinke dendakue

Marian Sanchezek 39 urte ditu eta Beinke dendan egiten dau lan Kristinakin batera. Gaur egun Olarte kalien badagoz be, Beinke oin dala 18 urte zabaldu zan. Itxuraz, Krisen amandriak herentzia zati bat itxi eutsen, horretan egiten euen lan eta horregaittik zabaldu euen holako dendie.

Esaidazu guzur bat.

Erretie ez jat bape gustetan.

Amets bat.

Alaba osasuntsu hazten ikustie gustauko jaten.

Amesgaizto bat.

Jausten nazela, eta ez dotela beheko partie ikuketan, benetan, lehen askotan pasetan jaten, leku altu batetik jausi eta azkenien esnau egiten naz.

Egin dozun azken biajie?

Luz Ardidenera. Eskiatzera juen nitzen, baiñe ez neuen eskiau.

Txartel horixe, zeini?

EAJ alderdixari.

Eta txartel gorrixen?

Orejari.

Film bat? Liburu bat? Disko bat?

La vida de Bryan / Los pilares de la tierra / Manolo Garcaren azkena.

Gustora egiten dozu zeure lana?

Bai, oso gustora.

Dendari ez baziña, zer izengo zitzake?

Anderenue.

Animalixe izetekotan, zer?

Zaldixe.

Drogak legeztauko zenittuzke?

Bai, batzuk bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako poteue ala diskotekak?

Tabernetako poteue.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Etxeko zapatillak, eta udan ortozik.

Zer gustetan jatzu Arrasatetik?

Alde zaharra eta Monterron.

Alkate izengo baziña, zer hobetuko zeunke?

Aparakalekuek.

Eta lehendakari izengo baziña?

Ixe danok konponduko geunkeena, pakie.

Bizio bat?

Tabakue eta txokolatie.

Zer erizten dotsezu Arrasate Press Goinkaria barruan sartzari?

Ohittu naz datorren moduan eta ez dakitt...

Zer gehittuko zeunke Arrasate Pressen? Eta zer kenduko zeunke?

Ez dotenez ulerketan ezin dotsut esan.

Gustoko mendi bat?



"Hasiera primerakue izen zan, oso urte jatorrak pasau geuen, gaztiek gitzen, hala be, ez geuken xemeikorik be ez eta urtebete egon gitzen kobrau barik."

Udalatx.

Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Bartzelonara.

Zeure bizitzan ezagututako pertsona interesgarri bat?

Neure senarra.

Eta ezagutu nahiko zeukeena?

Uste dot ez daukotela bat be ez.

Desleiala izetekotan, zeinekin?

Alejandro Sanzekin.

Telebista programa bat? Irratsaio bat?

Azkenaldixen telebistan ez dau ezer gustetan jatenik/ Arrasate Irratia, egun osuen jarritte daukogu, fidelenak garela uste dot.

Intsentsu (inciensu) usain bat?

%100 naturalak dienak, Indiatik edo Nepaetik ekarritakuek ikatz naturalak die, baiñe beste batzuk masa bat egindde, eta horreik ez.

Zertan gastauko zeuke dirua?

Biajetan.

Zer ez dozu jasaten?

Guzurre.

Txapelak edo zapixek?

Txapelak.

Denda haundixe ala txikixe?

Txikitxue.

250 ume Haur Dantzarien Egunean

Euskal Herri osoko 250 bat ume elkartuko dira Arrasaten ekainaren 17an, zapatua. Jaietako aspaldiko tradizio bati eutsiz, egun horretan Ume Dantzarien Eguna ospatuko da, eta haiek izango dira esku hartzaile eta protagonista. Hainbeste ume etorriko direnez, antolatzaileek, Arrostitz eta Lore Gazteak dantza talde mondragoetarrek, jendearen laguntza eskatu dute, batez ere umeak bazkalorduan etxera eramateko euren burua eskain dezaten, baina baita jaiegun horretan esku hartzeko.

BIZKAIA ETA NAFARROA

Arrasateko taldeetako umez gainera, Bergarako, Plaentziako, Antzuolako, Aretxabaleako, Durangoko eta Falceskoek esku hartuko dute; Arabakoak eta Iparraldekoak



ezin izango dira etorri, batzuk Araba Euskaraz delako eta besteek jaunartzeak dituztelako. Gainera, Oñatikoek ere kale egin dute, Korpus jaia delako han.

Goizeko 10etan elkartuko dira Zaldibarren, kalejira egin-

go dute-eta Arbolapetan, Seberren, plazan eta aukeratutako beste gune baten emanaldiak egingo dituzte ondoren. Bazkalostean, berriro dantzaldiak izango dira. Gainera, talde bakoitzak bere lurraldeko dantzak jokatuko ditu.

Punk kontzertua "Portu"ren omenez

Iraganeko euskal punk taldeen bilgune bihurtuko da Arrasate ekainaren 15ean, 80ko hamarkadako talde ezagunen kontzertua izango delako. RIP taldeko baxu jotzailea izan zenaren, Eduardo Mancebo "Portu"ren, omenezko emanaldia duzue.

"Portu"ren taldekide izandakoei bururatu zitzairen, eta 80ko hamarkadako hainbat euskal talderekin harremanetan jarri ziren. Talde gehienak desagertuta daude, hortaz, aparteko kontzertua izango da alde horretatik: Anti-Regimen, Odio, Heriotza, Ume Gaiztuak, MCD, Puñetazo eta RIP; gaur egungo bakarra Arrasateko Eskizofrenia Rock taldea izango da.

100.000 pezeta, margo onenari

Orain bi urte jokatu zen azkeneko Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroak antolatutako jaietako aire zabaleko margo lehiaketa. Erakunde hari Tamayo paper dendak hartu dio txanda, eta berak antolatu du aurtengo margo lehiaketa. Ekainaren 16an izango da, egun osoan.

290.000 SARITAN

Iaz, paper denda horren eskuatik, margo lehiaketak egin

ziren Arrasaten, Ordizian eta Donostian. Aurtengoan, ordea, herrian egindako lanen artean banatuko dira sariak: guztira, 290.000 pezeta emango dira, 100.000 lehenengoarendako. Ibai-Artek, Euskadiko Kutxak eta udalak sari bana eskainiko dute. Izena ematea ekainaren 16a baino lehen egin behar da, Tamayon. Arrasateko alde zaharrean egin behar dira lanak, baina teknika eta gaia libreak izango dira.

Lehiaketa - Arrosara doan!

Euskal Herria Zuzenean kontzertua egingo dela eta, laguntzaile moduan joateko aukera eskaini du Txatxilipurdik. Emanaldia ekainaren 29tik uztailaren 1era egingo da, Arrosan, Nafarroa Beherean.

Aukera aprobetxatu gura duenak 2.500 pezetaren truke autobusa eta gainerako gastuak ordainduta izango ditu. Ekainaren 19a baino lehenago

eman beharko duzue izena, Txatxilipurdin.

Baina laguntzaile moduan doan joateko aukera ere baduzue. Horretarako, Arrosan joko duten lau musika talderen izenak asmatu behar dituzue. Ahal den lasterren deitu Txatxilipurdira: 943 79 54 46. Ondo erantzuten duten lehenengo bi lagunek jasoko dute sari hori.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

UGARTE

Industria hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412

IVAN CABALLERO (MARGOLARIA)

«Artista hasiberriendako, Arrasaten aukera gehiagoren falta sumatzen dut»

Corazon de Encina kultura elkarteak ospatu duen azkenengo kultura asteak margolari gazte baten lanak ikusteko aukera eman digu. Ivan Caballero arrasatarra da, 14 urteko promes sendoa. Corazon de Encinako kide da eta kultura elkarte horren aldetik bultzada jasotzen ari da Ivan.

— Noiztik margotzen duzu?

— Oso txikitandik datorkit zaletasuna. Baina lehenengo aukera bost urterekin izan nuen: Lasarten, eskola publikoen jaietan, marrazketa lehiaketa egin zen umeondako, eta esku hartu nuen. Saritu egin ninduten. Gerora, sari gehiago irabazi ditut: 11 urterekin, bigarren bat lortu nuen, 15.000 pezeta eta trofeoa. Bestalde, nire auzoko, San Andresko, jaietan ere antolatuta izan diren lehiaketetan esku hartu izan dut, zorte onarekin.

— Corazon de Encinan erakusketa egin zenuen...

— Bai, baina ez da lehenengo aldia izan; aurreko kultura asteetan ere erakutsi izan ditut nire lanak. Hango presidente izan zenak, Jesus del Pozok, adorea eman izan dit. Haren ekimenez, Zarauzko extremadurarren elkartearen erakusketa egiteko aukera suertatu zait eta ea, bada, zer edo zer egiten dudana...

— Egunero-egunero margotzen duzu?

— Ez, horixe! Monterrongo margo ikastaroan nabil, eta bakarrik orduan margotzen dut. Bi egun dira astean, lau ordu guztira. Horregatik, margolan bakoitzak luze ematen du: hasten naizenetik bukatzen dudana arte, aste batzuk edo hilabetea ere igaro daiteke.

— Eta etxean margotzeari zer deri-



tzozu? Baduzu zure txorrik etxean?

— Ez. Materiala Monterronen gordetzen dut, eta margolana ere han izaten dut, harik eta bukatu arte. Aita-amek esan didate, lan bat bukatzeko zorian nagoenean, ea zergatik ez dudana etxera eramaten, asteburuan pasada on bat eman eta bukatuta utzi; baina nik, ezetz, gurago dudala asteburuetan gogoko beste ekin-tza batzuk egin. Horrela izanik, margotzeak ez dit denbora libre luzerik hartzen.

— Zelakoa da zure estiloa?

— Figuratiboa. Animaliak eta paisaiak margotzen ditut; erretratuarekin ere saiatu izan naiz, baina marrazkia besterik ez dut egin. Argazkietatik kopiatzeko teknika erabiltzen dut.

— Baduzu margolari edo margolan gogokorik?

— Van Gogh oso gustuko dut. Margolanen artean, *Los Girasoles* edo *El Puerto de Antibes* ditut gogoko. Bodegoiak ere gustatzen zaizkit, baina nik neuk ez dut halakorik irudikatzen.

— Inspirazioan edo lanean duzu konfiantza gehien?

— Batik bat, lanean. Nire formula hau da: ekin eta ekin, harik eta margolana bukatu arte. Margolari famatuak izatea gustatuko litzaidake; horretarako, lan eta lan egiten dut, geroago eta hobea izateko. Askotan erakusketak ikustera joaten naiz aitarekin; eta hark, margolanak haiek ikusterakoan, honakoa esaten dit: "Egile honek 30-40 urte bitartean izango ditu; bada, beharbada, zuk haien adina izan orduko, euren parekoa izango zara, edo hobea". Hala izango balitz!

— Zure ustez, artista hasiberriendako nahiko aukera dago Arrasaten?

— Aukerak badaude, baina gehiago izan beharko liritekeela uste dut. Orain, behintzat, Monterrongo margolan ikastaroa dago, baina ikastaro gehiagoren falta sumatzen dut, margolari gazteoi laguntzatxoa emateko. Aukera falta horrek, batzuetan, ilusio pixka bat galarazi izan dit.

« Lanean konfiantza handiagoa dut inspirazioan baino. Nire formula hau da: ekin eta ekin, harik eta margolana bukatu arte »

Udari begira, aldaketak herriko irrartian

Arrasate Irratiko programazioak hainbat aldaketa izango ditu uztailan.

Alde batetik, goizeko irratsaioek udako gaiei eutsiko dizkie uztailetik aurrera, eta bestetik, datorren astean bukatuko dira kolaboratzaileek iluntzetan egiten dituzten saioak.

Hortaz, datorren astean izango duzue azken aukera iluntzeko saioetako sariak eskuratzeko. Mini kateak, afariak... denetarik zotz egiten dute.

Bien bitartean, San Juanak prestatzen ari gara, eta ekainaren 23an, zapatua, eutsiko dio San Juanetako programazioari Arrasate Irratiak. Egutero, 11:00etatik 14:00etara.



Ostegun Ero saioko esatariak: Aitziber eta Ainara.

"Portu"ren omenezko kontzertua irrartian entzungai

Datorren egunean, hilak 21, gaueko 9etan, "Portu"ren omenez egindako kontzertuaz gozatzeko aukera izango duzue irrartian. Kontzertua luzea izango da, baina datorren

egunean ordubeteko laburpena eskainiko dizuegu.

Kontzertua gaur, hilak 15, izango da Montteronen, eta irratiak osorik grabatuko du.

Sariak

Munduko Musikaren inguruan Euskaldunon Egunkariak ateratako CD bilduma ere zuretzat izan daiteke. Bete zure datuak eta bidali irrartira txartela. Telefonoz deitu gura baduzu: 943- 71 17 31

Izen-deiturak:
Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31
edo deitu Arrasate Irratira: 943 71 17 31.

Sariak

Datozen egunetan Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa zotz egingo dugu. Betiko moduan, bi aukera: txartela bete edo 943 71 17 31 zenbakira deitu.

Izen-deiturak:
Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31
edo deitu Arrasate Irratira: 943 71 17 31.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:30 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 943 77 09 92
Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 943 78 21 82
OÑATI

foto zaharra



Sanjuanak gerturatzen ari direla-eta, *Arrasate Press* ere jaietarako giroten hasiko gara. Horren irudi

oraingo asteko argazki zaharra. 60ko hamarkadako da eta San Juan afaria egiteko elkartu zirene gure lagunak. Baina aurretik San Juanetako koadrilen lehiakere

tan ere parte hartu zuten, "Beti Alai" izenarekin.


Gure berriemaileak kontatu digunez, sekulako giroa egoten zen lehengo San Juan jaietarako.

tan. Oso jendetsuak izaten ei ziren, herritarrek ez zuten-eta, orain moduan, kanpora alde egiten. Horrela, jende mordoak parte hartzen zuen karrozen lehiaketan eta Garellanoko banda militarra ere etortzen ei zen, jaietako arratsalde eta gauak animatu eta jendea dantzan ipintzera.

Argazkia Iturriotz kaleko Zentroan dago aterata. Gaur egun Zentroa ez da existitzen, bere orde besterik ez da eraike zuten, baina oraingoak lehen-goaren armarrria eta aurrealde bera gorde ditu.

Honako hauek dira afarietarako partaideak, ezkerretik eskumara eserita: Marilu Markaide, Achen Etxebarria, Begoña Markaide eta Mertxe Etxebarria. Eta tente daudenak hauek dira: Maria Jesus Kruzelaegi, Espe Kruzelaegi eta Pilar Berezibar.

Argazkia eta berriemaileak:
Achen Etxebarria.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



Deportibo baten **2** eserleku dituzu...

Auto baten **5** eserleku dituzu.

Opel **Zafira** da bere mailan
7 eserleku dituen bakarra.

Opel Zafirak automobilaren kontzeptua bere osotasunean aldatu du. Kanpoaldetik, auto familiar baten tamaina berbera dauka. Barrualdean bizitasunez beteta dago, **7 eserleku** dauzka eta eserlekuok itxuraldatzeko aukera ugari ditu, zure familia eta lagun^{en} beharretara egokitzeko. Opel Zafira, zure planak bezain malgua.



Opel **Zafira**. 7 aldiz malguagoa.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1, 2, 3, aukerak: Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN: **TAKOLO AUTOAK, S.L.**

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86.

Udako Ikastaroak / Barnetegiak



Lotsarik gabe!

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ESKAITZA

EUSKALDUNTZE maila guztiak: uztailaren 2tik 24ra.
Egunean 5 ordu goizez, astelehenetik ostiralera.

ALFABETATZE maila guztiak: uztailaren 2tik 24ra.
Egunean 3 ordu, astean 3 egunetan.

MINTZAMENA lantzeko ikastaroak: uztailaren 2tik 24ra.
Egunean 3 ordu astelehenetik ostiralera.

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa:
Uztailan eta irailean.

BARNETEGIA

Uztailaren 1etik 15era ZERAINEN.

MATRIKULATZEKO EPEA
Ekainaren 4tik 22ra.


BULEGO ORDUTEGIA
Goizez: 10:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-18:00.

UDAL
EUSKALTEGIAK



ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) · ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 · Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net



Calvin Klein
CK
eyewear

Eguzkitako betaurrekoak
erosterakoan, kristal pareak
graduatuak dizugu, 3.000
pezetan soilik.



INSTITUTO
OPTICO

Erdiko Kale, 22 • Tel.: 943 79 71 68

Hiper Eroski • Tel.: 943 79 78 26

ARRASATE